

## STEILASen prentsa-oharra interinoen zerrenden kudeaketa berriaren aurrean

Gaur, apirilak 5, Mahai Sektorialean Hezkuntza Departamentuak sindikatuei aurkeztutako interinoen zerrenden kudeaketa berriaren Agindu Foralaren proposamena aztertu dugu. STEILAS sindikatuak prentsa ohar honen bidez haren jarrera agertu nahi du:

- Lehenik eta behin esan behar dugu gure kexa azaldu dugula Mendoza Kontseilaria agertu ez delako.
- Lehentasunezko zerrenda – bai eta beste kontu bat edo beste – positibo baloratu dugu.
- Zerrenda bakarraren apustu irmoa izanagatik ere, hainbat ekarpen egin diogu aurkeztu zaigun dokumentuari; hala ere, datorren urtean gaur egungo hizkuntza apartheid gainditzeko duen bestelako araudia negoziatzeari heltzeko premia azpimarratu dugu.
- Gure kontrako jarrera honako puntuotan adierazi dugu:
  - Oposizioetako emaitzari gehiegizko balioa ematen zaio.

- Bi urteko epean kontraturik onartu ez izanaren ondorioz zerrendatik kanporatua izateko aukera gogorki kritikatu dugu; era berean, lanean egoteagatik kontraturik ez onartzea nahikoa arrazoia dela uste dugu ordezkapen bat onartzeko, zerrendetatik kanporatua izan gabe. Kudeaketaren erraztasuna ez da arrazoia langileen lan baldintzak zapaltzeko. Departamentuari interinoekiko errespetu handiagoa exijitu diogu. Hainbat sindikatuk bat egin du proposamen honetan, eta litekeena da puntu hau aldatzea. Era berean, telefono bidezko kontratazioei dagokienez, sistemaren gabeziak gainditzeko proposamenak onartu ez izana guztiz kezagarria iruditzen zaigu. Beste behin ere eredu informatikoa defendatu dugu, beste Erkidegoetan egiten den bezala.

STEILASen iritziz, Mahai Sektorialean jorratu dugun proposamenean Administrazioak langile interinoen lan baldintzei erakutsi beharreko errespetu falta dago. Hortaz, araudiaren azkenengo bertsioan gure eskaerak isladatzea eskatzen dugu.